



# GIPUZKOAKO SUPER BETERANO TXAPELKETA 2023

## TXAPELKETAREN OINARRIAK

1. Txapelketa urriaren 15, 22 eta 29an eta azaroaren 5, 12, 19 eta 26an jokatu da.
2. 9 jokalarri baino gutxiago badaude, Liga sistemaren bidez (Round Robin) jokatu da; 9 eta 15 jokalarri artean badaude, sistema suitzarraren bidez, 5 txandatan; eta 15 jokalarri baino gehiago egonez gero, sistema suitzarraren bidez, 7 txandatan.
3. 1959an eta aurreko urteetan jaiotako eta GXFn federatutako jokalarri guztiek parte hartu ahal izango dute .
4. Txapelketaren joko-erritmoari dagokionez, FIDEko xake-arauak aplikatu dira.
5. Txapelketa hasten den egunean indarrean dagoen Gipuzkoako Banakako Txapelketen Araudia aplikatu da oso-osorik.
6. Txapelketa antolatzeko baimena duen klubean jokatu dira partidak. Txanden ordutegia behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko da.
7. Joko-erritmoa ordu 1 eta 30 minutukoa izango da banakako kronoan, eta 30 segundo gehituko zaizkio jokaldi bakoitzeko.
8. Ordulariak partida hasteko adierazitako orduan jarriko dira martxan, eta hortik ordu erdira taulara agertu ez den jokalarriak partida galduko du ez bertaratzeagatik.
9. Txapelketa sistema suitzarrez jokatzeko bada, birritan ez bertaratzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Epaileak erabaki ahal izango du lehen txandara bertaratzen ez den jokalaria kanporatzea. Jokalarriak epaileari txanda argitaratu aurretik jakinarazten badio bertaratuko ez dela, ez da ez bertaratutzat hartuko.
10. Txapelketa Liga-sistemaren bidez jokatzeko bada (Round Robin), birritan ez bertaratzeak, justifikatuta egon ala ez, txapelketatik kanporatzea ekarriko du. Jokalarri batek txapelketako partidaren erdia baino gutxiago jokatzeko bada, emaitza guztiak baliogabetuko zaizkio sailkapena egiteko.



11. Jokalariren batek partidaren bat aurreratzea eskatzen badu, honako arau hauei jarraituko zaie:

- Partida egun horretan jokatu ezin duenak partida aurreratzea erabaki dezake. Horretarako, txapelketako epaileari jakinaraziko dio, eta honek partida aurreratzeko baimena eman beharko du.
- Partida aurreratzeko duen jokalaria aurkariarekin ados jarri behar du partida zein egun, ordu eta lekutan egingo den zehazteko, txapelketako epaileari jakinaraziko dio eta emaitza eman beharko dio beranduenez partida aurreratu gabe jokatu behar zen ordurako eta egunerako; hala egin ezean, partida galdu egingo du, ez bertaratzeagatik.
- Partida aurreratu nahi duen jokalaria ez bada aurkariarekin ados jartzen, epaileak ez du aurreratzeko baimenik emango, eta partida hasiera batean adierazitako egunean eta orduan jokatuko da.
- Ez da baimenduko azken txandan partidak aurreratzea, guztiz justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik. Epaileak partida aurreratzea baimenduko beharko du.

12. Partidan zehar, debekatuta dago jokalaria batek joko-eremuan telefono mugikorra edo xake-jokaldiak iradoki ditzaketen komunikazio elektronikoko gailurik edukitzea. Hala ere, gailu horiek jokalariairekin poltsan edo motxilan gordeta egotea edo joko-mahaiaren gainean edukitzea baimentzen da, betiere gailua erabat deskonektatuta badago. Jokalaria ezingo ditu poltsa, motxila edo gailu horiek joko-eremuan eduki epailearen baimenik gabe. Bistakoa bada jokalaria batek joko-eremuan gisa horretako gailu bat duela, partida galduko du. Aurkariak irabaziko du partida.

Partida hasi aurretik, jokalaria guztiek jakinarazi beharko diote aurkariari ea poltsan edo motxilan telefono mugikorrik edo xake-jokaldiak iradoki ditzaketen beste komunikazio elektronikoko gailurik duten joko-eremuan.

Hori guztia indarrean dauden FIDEko Xake Arauen eta FIDEko Epaile Batzordearen aginduaren arabera, hemen eskuragarri: <http://arbiters.fide.com/>



13. Jokalariak ezingo dute joko-aretotik atera beren partida jokoan dagoen bitartean, epaile-taldeko kideren baten baimenarekin ez bada. Hark, txandaren egoera orokorra edo irteteko beste baimen batzuk baloratu ondoren, ateratzeko baimena ematen dion ala ez erabakiko du. Jokalariak ezingo dute analisi-gelara sartu partidak abian dauden bitartean.

14. Txapelketa sistema suitzarraren bidez jokatzen bada, puntuaketa berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

- a) Bucholz, emaitzarik txarrena kenduta
- b) Bucholz, guztira
- c) Sonnenborn-Berger
- d) Garaipen-kopurua
- e) Zozketa

Bucholz kalkulatzeko, jokatu gabeko partidarik egonez gero, erabilitako programak aplikatutako zuzenketaren bat egingo da, epailearen irizpidearen arabera. Adibidez, Swiss Managerraren aurkari birtuala izeneko menua aplikatzea.

15. Txapelketa Liga sistemaren bidez (Round Robin) jokatzen bada, puntuetan berdinduz gero, berdinketa hausteko sistema hauek aplikatuko dira hurrenez hurren:

- a) Sonnenborn-Berger
- b) Berdindutakoen arteko emaitza partikularra
- c) Garaipen-kopurua (ez bertaratzeagatik irabazitakoak barne)
- d) Txapelketako pieza beltzen kopurua (jokatu gabeko partidak barne)
- e) Pieza beltzen kopurua berdindutakoen artean.
- f) Zozketa

Berdinketa hausteko sistema bat aplikatzearen ondorioz berdinduta dauden jokalarien kopurua gutxitzen bada, berdinketa hausteko sistemak berriro aplikatuko dira hasieratik.



16. GXFk izendatu eta ordaindu behar dituela uste duen txapelketa-epaileak izendatu eta ordainduko ditu.
17. Txapelketak Elo FIDEn zenbatzeko balioko du.
18. Garaikurrak egongo dira gutxienez lehen hiru sailkatuentzat.
19. Txapelketan parte hartzen dutenek baimena ematen dute antolatzaileek ekitaldia behar bezala zabaltzeko egokitzat jotzen dituzten komunikabideetan beren datu pertsonalak argitaratzeko (emaitzak, sailkapenak, partidak, argazkiak, etab.).
20. Txapelketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauek eta aplikatu beharreko gainerako araudiak onartzea eta betetzea.